

## 'Moneta' lokalak

### 1. Eusko izeneko moneta Iparraldean

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan *eusko* izeneko moneta erabiltzen hasiko omen dira<sup>1</sup>.

Ez dakit jakingo ote dugun moneta zer den. Badaezpada ere, hona hemen zenbait lanetan jadanik aipatutakoa.

Monetaren, alegia diruaren estatu-teoriaren arabera hauxe esan daiteke:

- 1) Moneta edo dirua ez da gauza material bat, aktibo-pasibo bat baizik, hots IOU (*I owe you*) bat, alegia '*zor dizut*' bat<sup>2</sup>.
- 2) Moneta bati estatuak ematen dio balioa, zergapetzearen bidez. Estatuak aukeratzen du zein monetatan ordaindu behar diren zergak. Hots, beraren moneta propioan.
- 3) Estatu subirano batek bere moneta propioa jaukitzen du. Berak nahi eta behar duen beste moneta jaukitzen du (inflazio arazorik gabe, gaur egungo baldintzetan).
- 4) Estatu horrek bera moneta debalatu ahal du, kasu, esportazioak areagotzeko.
- 5) Estatu horrek politika fiskal apropos bat martxan jar dezake.
- 6) Moneta horrek, beste monetekin batera, flotatu egiten du.
- 7) Kontuz moneta 'lokalekin'. Galdera hauxe da: zeinek ematen dio balioa moneta lokal horri?

Euskoa oso izen polita da<sup>3</sup>, baina izen baten azpian ez dago ezer, hitzak polisemikoak baitira, edo nahi baduzue, izen baten azpian interpretazio asko daude.

Hortaz, gogoratu hau: [Kontuz moneta 'lokalekin'. Galdera hauxe da: zeinek ematen dio balioa moneta lokal horri?](#)

### 2. Bilbodiru

Informazioa<sup>4</sup>.

Webgunea<sup>5</sup>. Jakina denez<sup>6</sup>, '*bilbodiru*' hori ez da dirua izango, ez da inolako moneta izango, elkartruckerako erreminta soil bat baizik.

---

1 Ikus <http://www.kazeta.info/euskalherria/euskal-moneta-alternatibak-eusko-izena-du>.  
<http://www.lasemainedupaysbasque.fr/2012/05/14/11968-la-monnaie-basque-s-appellera-eusko>.

2 Aspaldian aritu gara horretaz. Berriki oso ongi esplikatu du, berriz ere, Randall Wray-k ABC hori: <http://www.economonitor.com/lrwrays/2012/04/19/does-chairman-bernanke-know-squat-about-money/>. Eta Stephanie Kelton-ek diapositiben bidez, maisuki adierazi du afera: <http://www.slideshare.net/MitchGreen/money-is-no-object..>

3 Izatez, balediko Euskal Errepublikan independenterako, behin baino gehiagotan, *eusko* izeneko moneta aipatu dut EHko moneta propiotzat. Eusko hori (independentea ez litzatekeen eta EH osoko Parlamentuaren menpe egongo litzatekeen) Euskal Banku Zentralak bermatuko luke.

4 Ikus <http://bizkaia.hitza.info/2013/01/11/dirua-bitartekari-bihur-dadin/>.

5 Ikus [www.bilbodiru.org](http://www.bilbodiru.org).

EHren moneta propioa beste afera bat da<sup>7</sup>.

EHn moneta propioa izateko badago proposamen bat<sup>8</sup>. Kasu honetan EHn ez litzateke euroa erabiliko, EHren moneta propioa baizik (edozein delarik haren izena.). Baina EHk Europar Batasunean (EB) egoten segituko luke, Britainia Handiak bezala (non euroa ez baita erabiltzen, nahiz eta EBn egon).

(Dena den, badago beste proposamen zehatz eta dotore bat EH errepublika independenterako: EHk EBn segitzea, estatu independente bezala, euroa erabiliz eta Mosler-en bidetik<sup>9</sup>.)

### 3. Eusko, ogerleko, bilbodiru... eta euroa

Nominalistek uste dutenez, izena duen guztia omen da.

Baina, dakigunez, izen baten azpian ez dago ezer, hitzak polisemikoak baitira.

Kasurako, behean aipatzen diren guztiak (bilbodiru, eusko, ogerleko, eta bide antzekotik etor daitezkeen guztiak) ez dira monetak, truke hutserako erabil daitezkeen sasi-monetak baizik:

- (i) *Eusko* (Iparraldean)<sup>10</sup>
- (ii) *Bilbodiru* (Bilbon)<sup>11</sup>
- (iii) *Ogerleko*, Aiara haranean: informazioa<sup>12</sup>

Moneta izateko, hona hemen bete behar diren baldintza batzuk<sup>13</sup>. Halaber, ikus ondoko zehaztasunak:

- (a) Nola irten eurogunetik<sup>14</sup>
- (b) Warren Mosler-en proposamen dotorea, euroa erabiliz<sup>15</sup>
- (c) Moneta propioa<sup>16</sup>
- (d) Teklatuaren bidez...: Eurolandian ere?<sup>17</sup>

### 4. Sasi-monetak (ekhi, eusko, ogerleko, bilbodiru...) eta moneta (euroa)

Beste sasi-moneta berri bat martxan jarriko dute: *ekhi* izeneko<sup>18</sup>.

---

6 Antzekoa gertatzen da Iparraldean *eusko* izenekoarekin: <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2012/05/16/eusko-izeneko-moneta-iparraldean/>.

7 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2012/08/03/eh-eta-moneta-propioa/>.

8 Ikus <http://es.scribd.com/doc/59851149/Nola-irten-eurogunetik-Proposamena>. Halaber, ikus <http://moslereconomics.com/2011/05/16/how-to-exit-the-euro-a-proposal-from-1997/> eta <http://moslereconomics.com/2011/11/17/my-big-fat-greek-mmt-exit-strategy/>.

9 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2012/05/21/warren-mosler-en-proposamenak/>.

10 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2012/05/16/eusko-izeneko-moneta-iparraldean/> eta aurreko 1. atala.

11 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2013/01/13/bilbodiru/> eta aurreko 2. atala.

12 Ikus [http://paperekoa.berria.info/harian/2013-10-31/015/007/ogerleko\\_txanpona\\_sortu\\_dute\\_aiaraldean.htm](http://paperekoa.berria.info/harian/2013-10-31/015/007/ogerleko_txanpona_sortu_dute_aiaraldean.htm).

13 Ikus aurreko 1. atalean esandakoa.

14 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2011/07/12/nola-irten-eurogunetik-proposamena/>.

15 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2012/05/21/warren-mosler-en-proposamenak/>.

16 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2012/08/03/eh-eta-moneta-propioa/>.

17 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2013/06/20/teklatuaren-bidez-eurolandian-ere/>.

Jadanik aipatu dugu joera hau. Azkenean hemen<sup>19</sup>.

Aipatutako guztiak (bilbodiru, eusko, ogerleko, ekhi eta bide antzekotik etor daitezkeen guztiak) ez dira monetak, truke hutserako erabil daitezkeen *sasi-monetak* baizik.

Gogora dezagun, behin eta berriz, moneta izateko baldintza batzuk bete behar direla.

Zehaztasun batzuk aurreko 3. atalean: [Nola irten eurogunetik; Warren Mosler-en proposamen dotorea, euroa erabiliz; Moneta propioa eta Teklatuaren bidez...: Eurolandian ere?](#)

## 5. 'Moneta' lokalak

Randall Wray 'moneta' lokalaz, gobernu lokalaz eta zerga ordainketaz aritu zen aspaldian<sup>20</sup>.

- 1) Massachusetts eta *BerkShare* izeneko moneta lokala:

*"A local government could help to stimulate circulation of BerkShares by accepting them in tax payment. Firms and households with local tax liabilities would be encouraged to accept BerkShares. Local government could pay part of its bills using the local currency."*

- 2) Kalifornia eta *warrant* izeneko moneta lokala:

*"California can turn its warrants into sovereign currency by agreeing to accept them in payments to the state. Note that we ARE NOT arguing that California should make them "legal tender, payable for all debts public and private"—this is something it cannot do."*

Kontua beti hauxe da: 'moneta' lokala onartzea, zergak ordaintzeko. Horixe da benetako arazoa. Hau da, estatu batek edo gobernu lokal batek moneta lokal hori sostengatu behar du, zergak ordaintzearren.

Gure kasuan, Iparraldeko 'euskoa' frantses estatuak onartu eta sostengatu beharko luke. Halaber, Hegoaldeko probintzia ezberdinetan agertuko diren 'moneta' lokal guztiak (ekhi, ogerleko, bilbodiru, eta etor daitezkeen guztiak) bertako Hazienda desberdinek onartu beharko lituzkete 'moneta' horiek zergak ordaintzeko.

Sakontzeko, ikus ondoko linka<sup>21</sup> edo aurreko 1. atala.

## 6. Iruzkinak

Unai lagunak honelako iruzkia jarri du UEUko blogean<sup>22</sup>:

"BRISTOL POUNDS-en kasuan (<http://bristolpound.org/>) udal-zergak ordaintzeko erabil daiteke. Ikus [http://en.wikipedia.org/wiki/Bristol\\_Pound](http://en.wikipedia.org/wiki/Bristol_Pound): "Because of the local council support, Bristolians are able to pay their local taxes using the new currency" (gehiago: <http://bristolpound.org/news?id=38> eta <http://www.bbc.co.uk/news/uk-england-bristol->

---

18 Ikus <http://euskadi.goteo.org/project/ekhi>.

19 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2013/10/31/eusko-ogerleko-bilbodiru-eta-euroa/>. Halaber, ikus aurreko 3. atala.

20 Ikus <http://neweconomicperspectives.org/2009/07/berkshares-buckaroos-and-bear-dollars.html>.

21 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2012/05/16/eusko-izeneko-moneta-iparraldean/>.

22 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2013/12/17/moneta-lokalak/#comment-3228>.

[24130847](http://www.theguardian.com/uk/2012/nov/20/mayor-salary-bristol-pounds)). Horrez gain, alkateak berak bere soldata moneta berri horretan kobratzea eskatu du (<http://www.theguardian.com/uk/2012/nov/20/mayor-salary-bristol-pounds>). Horrez gain, zenbait zerbitzu “publiko” (esate baterako, garraioa) moneta lokal horretan gauzaten hasi dira (<http://www.theguardian.com/uk-news/2013/sep/13/buses-bristol-pounds-local-currency>).”

Hona hemen beste iruzkin bat gehiago:

Perfect!

Horrek esan nahi du Randall Wray-k 2009an esan zuena ikasi dutela.

Gogoratu Warren Mosler-en hitzaldia Bulgarian<sup>23</sup> eta antzerkitxo<sup>24</sup>:

*Zergak eta armadun gizonek paper hutsa, hau da sasi-moneta bat, moneta bilakatzen dute.*

Edo eta Nobel sariduna de Paul Krugman-ek dioena: *fiat-eko dirua zergak eta armadun gizonek sostengatzen dute*<sup>25</sup>.

Eta euskoz, ekhiz, ogerlekoz, bilbodiruz eta bide beretik etor litezkeen sasi-moneta guztiez? Zeinek sostengatuko ditu?

Zergen biltzaileak onartu behar ditu sasi-monetak, moneta edo diru bilaka daitezten. Zein da zerga biltzailea Iparraldean? Eta Hegoaldean?

Dena den, hona zer zioen Wray-k Kaliforniako *warrant* delakoaz:

- a) *“As a stopgap measure, this will ensure a demand for the state’s IOUs. Each individual vendor, contractor, or even state employee will accept the state’s new warrants up to the individual’s expected tax liability. Eventually the warrants will also be accepted by retail establishments and others who also have liabilities to the state of California—meaning that the state could (eventually) issue a number of warrants equal to the total of all such obligations owed to the state, on an annual basis.”*

Hau da, gobernu lokal batek, Kaliforniakoak, *warrant* delako jaulki dezake, soilik aipatutako baldintzetan.

Are gehiago:

- b) *“The next step is to issue these IOUs at zero interest. The taxes, fees, and liens will be sufficient to generate a demand without promising interest. Currency is simply an IOU that does not pay interest—it is “current”. (...) the state can also accept its own “currency” in payment of fees and tuition paid to state institutions of higher learning—further increasing demand.”*

Baldintza hori betetzen da Bristol-en? Hau da, *BRISTOL POUND* delakoa zero interesetan jaulkitzen da? Ez dakit, baina ezezkoan faltsukeriatan, hots, iruzurretan ibiliko lirateke.

---

23 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/lana-zergak-langabezia-aurrezkiak-inflazioa>.

24 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2013/12/15/haur-ekonomia/>.

25 Ikus <http://moslereconomics.com/2013/12/09/krugman-on-fiat-money/>.

Bukatzeko:

- c) *“Unlike other local currencies around the country—such as the BerkShare in Massachusetts, the new California currency would then be “tax driven”, thus sustainable. In other words, it would be a sovereign currency backed by the state’s ability to impose taxes.”*

Lehen aipaturako baldintza guztiak betetzen badira Bristol-en, orduan eta soilik orduan BRISTOL POUND delakoa zergek sustengaturako moneta izango litzateke, azken finean moneta subirano bat estatuak, Britainia Handiak, sustengatuta, zergak ordaintzeko baliagarria izango den heinean.